


Arrasate

P R E S S U

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko uztailaren 19a / 594. zenbakia

Arrasateko emakumeak XX. mendean

Arrasateko Udalak herriko
emakumeen gaineko liburua argitaratu du



ORAIN ETA HEMEN: **ARRASATEKO INDUSTRIALDEA/8** • **KIROLA: EUROPAKO WUSHU KUNG FU TXAPELKETA/11**

AZALA: AMAIA MARTIARTU

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Uarkape, 18 behea. ezk. ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA ETA GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Garibai Etorb. 6B ☎ 943 77 03 96
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72
- MARIA GARDOKI LEGORBURU. ☎ 670 52 19 34

KIROPRAKTIKA ZENTRUA

- ANDREA LARRAÑAGA Erdiko kale, 22-3. eskuma ☎ 943 79 92 83

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Kiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirolegian ere bai) ... ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 ☎ 659 58 66 89

PODOLOGIA

- ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA Erdiko kale 54, behea eskuma ☎ 943 79 97 46


PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Wushu Kung Fu kirola ezaguketan dozu?



IGOR LETURIA
Langillie



JESUS IRIARTE
Jubilaue



SERGIO ARROYO
Ikasle



ANA URIBARREN
Langillie



NEREA FORONDA
Langillie



MIREN VILLAR
Langillie

Kirol horren gaiñien irakurri dot zeozer, *Goienkaria*-n, gaiñera. Euskal Herriko Selektziñuek parte hartzen badau, edarto. Penia, normalien kirol minoritarixuek izetie.

Ez, ez dot ezaguketan kirol hori. Euskal Herriko Selektziñue bertan egongo dala? Hori derrigorrezkue izen biherko litzake. Kirol horretan eta futbolien eta beste deporte danetan be.

Ez dot ezaguketan, baiñe arte martzial bat dala esango neuke. Kung Fua-eta ezaguketan dittut, baiñe Wushu Kung Fua, ez. Futbola ez dan bittartien, beste dana ondo dago.

Ez dot ezaguketan. Gusto- ra juengo nitzake txapelketa hori ikustera, baiñe mutikue zaindu biher dot; hortan, ezin juen. Ondo pentsetan jat Euskal Herriko Selektziñuek parte hartzie.

Ez, ez dot kirol hori ezaguketan, baiñe Euskal Herriko Selektziñuek parte hartzie ondo pentsetan jat. Txapelketie asteburuan bada, iguel juengo naz ze dan ikustera.

Ez dot ezaguketan, baiñe Euskal Herriko Selektziñuek aurrera egin deixen ondo pentsetan jat txapelketa horretan parte hartzie. Ez dot uste txapelketia ikustera juengo nazenik.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK IGOTZEKO ZAILTASUNAK Cerrajeran jarri duten Industria Erakusketak interes handia piztu du herritarren artean, eta, batez ere, edadetuen artean. Baina herriko edadetu batzuek eta euren senitarteoek erakusketa horren inguruko kezu bat helarazi digute. Cerrajerako egoitza nagusia zen eraikin horrek ez dauka igogailurik eta hainbat lagun ezin izan dira erakusketara igo.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

Garaia, aurrera

Garaia Ikerketa Gunea egiteko proiektuaren plan partziala onartu du Udalak behin-behineko.

KIROLA /10

'Dirtsurf'-a ezagutzen

Geroago eta gehiago dira kirol berri hori egiten dutenak. Arrasaten Zigor Vega da bakarra.

KULTURA /14

Markeliñeren 'DSO' lana

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, herriko plazan, Markeliñe taldeak DSO lana antzetzuko du.

ASTEKO DATUA

17


SELEKZIO IZANGO DIRA ARRASATEN ASTEBURUAN

Asteburuan Europako Wushu Kung Fu Txapelketa jokatu da Arrasaten, eta guztira 17 selektzio arituko dira. Europako eta munduko selektzioez gain, Euskal Herrikoa ere izango da.

BESTEKE SANA

“ Nik idazten dut ene hondamendia sublimatzeko. (...) Literaturak, poesiak, irakurria izateko, ulertua izateko baino ez du balio, ez dauka inolako funtzio sozialik. (...) Ez dut inondik ere poeta madarikatua izan nahi, gurago dut poeta burgesa izatea. Niri gutxi batzuentzat idaztea gustatzen zait. (...) Kapitalismoa sistema erabat analfabetoa da. Eta Espainia kapitalismoa bera baino are analfabetoagoa. (...) Kalearen beldur naiz, agarofobia, baina pertsekuzio-maniarik ez daukat. (...) Ni ez naiz kastua, ez naiz inoiz garbia izan, baina Franco zela tarteko, ba are gutxiago oraindik. (...) Ezin naiz Festimad-era joan. (...) Behin joan nintzen batera, Mondragoen nengoela...”
LEOPOLDO MARIA PANERO
'Putz'/02-07-01

HERRITARREN BERBAK/ Iker Ezpeleta



Topa, Marokko-rengatik

Honela jaurti zigun lagun batek afaltzeko hastear ginela, anarkista samarra lagunoi, portzierto. Umerez eta gustura egin genuen topa, Laila edo Perejil horren kontua barrez lehertzekoa baita.

Xelebrea benetan espainiar zein marokkoar gobernadoreek beraien politikeriak aurpegiratzeko erabiltzen dituzten estrategiak (?). Tamalez susmoa daukat umekeria guzti horiek ez dituztela gu libertzeko egiten. Horren adibide, inor gutxiri komentatzen dizkiodan Raxoien adierazpenak (Gobernu espainiarreko bozeramaile bezala egin dituen lehenak). Ez zuen ba lasai asko jaurti Espainiar estatuan berrehun mila marokkoar baino gehiago bizi direla eta beste milioi bat eta bostehun mila uda garaio-tan pasatzen direla estatu espainoletik Marokkorako bidean.

Ez dakit zuei baina niri behintzat ezin egon nabari bat

sortu zidan. Nola ulertu behar dira bada mehatxu hauek? Ez al da hau mairuaren ehizarako dei garbi bat? Gero, skinhead inkontrolatuen kontuekin bueltaka etorriko zaizkigu.

Zein alde dago Le Penen faxismoaren eta jokabide eta adierazpen hauen artean? Forma kontuak gorabehera, gauza bera. Alderik bakarra Frantziako Estatuan Le Penek ehuneko hamarra duela (ikaragarria, bestalde) eta Espainiako Estatuan,

PPren faxismoak gehiago absolutua duela. Puztuta dabil faxismoa Europa zaharrean, eta kontu hau, nahiz egunero Euskal Herriarekin egiten dituztenak, horren adibide garbiak ditugu. Ezin ahaztu, bestalde, Estatuaren egoerari buruzko eztabaidan, PSOEk bat egin duela zirkunik gabe gai biotan. Bai marokkoar gaian eta bai euskal arazoan, forma kontuak gorabehera...

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziabar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale



ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 19**
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 79 99
- ZAPATUA, 20**
Irizar. Erguin, 11. 943 79 12 39
- DOMEKA, 21**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- ASTELEHENA, 22**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- MARTITZENA, 23**
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 24**
Irizar. Erguin, 11. 943 79 12 39
- EGUENA, 25**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguualatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espzialitateak. 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTZAILERAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzailleburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
19:00 (gaztelaniaz)
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

MAALAKO JAIK
Domekan eta astelehenean, Maalako jaiak ospatuko dituzte. Domekan, 12:00etan, San Frantzisko elizan meza izango dute. 13:00etan, berriz, Plus Ultra tabernan luncha izango dute kaleko erretiratuek. Astelehenean, berriz, goizean, ume jolasak eta txokolate-jana izango dituzte; eta arratsaldean, afaria, musika, dantza eta suzko erruberak.

1952KO KINTOAK
Bihar, zapatua, 1952ko kintoek ospakizuna egingo dute. 12:30ean, San Juan Bautista parrokiaren meza izango dute. 13:30ean, Monterron parkean argazkiak aterako dituzte, eta 14:30ean, Aldape tabernan bazkaria izango dute.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Datorren egunean, uztailaren 25ean, 22:30ean, Monterronen, *Amelie* filma egongo da ikusgai, doan.

'DSO' ANTEZLANA
Gaur, egubakoitza, 22:30ean, herriko plazan, Markeliñe antzerki taldeak DSO lana eskainiko du.

INDUSTRIA ERAKUSKETA
Martitzenetik egubakoitzera eta zapatu eta domeketan dago zabalik, Cerrajeran.

AEDrenAGENDA

KULTUR ERROTA
Bihar, zapatua, 23:00etan, Usurbilgo Labrit musikariak kontzertua emango du Ferrerias kaleko plazatxoan. Kontzertua AEDk antolatu du eta Kultur Errotaren barruan kokatu dute. Labrit musikariak Oihuka diskoetxearekin kaleratu duen bigarren diskoa, *Nori egin so!* aurkeztuko du.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerrieta, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Besaideko isurtegia lindanea aurkitu zuten

Ihobe enpresaren arabera, Besaideko isurtegia lindanea zegoen. Enpresaren ustez, legez kanpo egindako isurketek zuten errua. Ezker Batuak Udalarari eskatu zion isurtegiaren ondoko ortuen ikerketa egitea, prebentzio lana egitea, herritarrei informatzea eta lindanea batzea.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Txistaria"

1. *Txist* edo antzeko zerbait ahoskatuz eginiko deia.
-Atzian txistaria entzuan dot, zein' ete zan, eta bera.
-Pasatzerakuan txistaria ein ddotsat baiña ezta akordau.
2. Ijekzioa.
-Medikuak txistara txiki bat emun biotsu, baiña txiki-txikixa.



GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Domeka, 14 **9°C**

MAXIMOA
Egubakoitza, 12 **25°C**

ASTEKO EURIA (l/m²)
1,5 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 10	21°C	14°C	0,7 l/m²
Eguena, 11	23°C	13°C	- l/m²
Egubakoitza, 12	25°C	11°C	0,8 l/m²
Zapatua, 13	20°C	14°C	- l/m²
Domeka, 14	21°C	9°C	- l/m²
Astelehena, 15	22°C	12°C	- l/m²
Martitzena, 16	24°C	11°C	- l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Arrasate Irratiak oporrak hartuko ditu irailera arte

Bukatu dira Arrasate Irratiaren zuzeneko emanaldiak. Herriko irratiak oporrak hartuko ditu irailera arte. Irailaren 2an itzuliko gara zuzeneko emanaldiekin. Hala ere, abuztuan ere Arrasate Irratia pizteko aukera izango duzue, 24 orduz musika izango da-eta entzungai.

UZTAILAREN 22TIK 24RA
Datorren astelehenetik eguaztenera, hainbat elkarrizketa

entzuteko aukera izango duzue. Urtean egin ditugun elkarrizketak, baina errepikatzea merezi dutenak. 09:00etan eguneko agenda entzun ondoren, elkarrizketen txanda izango da. Horren ondoren, berriz, musika izango da entzungai. Uztailaren 22tik 24ra izango da hori.

IRRATIAN IBILI GURA DUZUP?
Herriko irratiak urrian helduko die kolaboratzaileen saioei. Hainbat tarte estreinatuko

ditugu urritik aurrera, baina proposamenak egiteko aukera dago oraindik. Hortaz, gauz saio bat eginez irratiari ibili gura baduzu, dei ezazu irrati-ara. Edozein motatako tar-teak proposa ditzakezue: musikaren gainekoak, elkarrizketez osatutakoak, magazinak, tertuliak... Gurekin harremanetan jartzeko telefonoa honako hau duzue: 943 71 17 31. Ez izan heldurrik, zuen ideia edozein delare, pozik entzungo dugu.

ASTEABIHITZETAN

Astorek desfilea Biasterin

Astelehenean, Arrasateko Astore enpresak jendaurrean erakutsi zituen datorren udako kirol jantziak. Arabar Errioxako Biasteri herria aukeratu zuten desfilea egiteko, eta 200 bat lagun elkartu ziren Astoreren datorren udako jantziak ikusteko. Lehenengo aldia da Astorek horrelako desfile bat antolatzen duena, eta Arrasateko enpresaren ordezkariak oso gustura azaldu ziren.

Horrez gain, eguaztenean, Realaren jantzi berriak erakutsi zituzten Donostian. Aurkezpena Anoetan izan zen, eta taldearen ekipamenduan hainbat aldaketa egin dituzte.

'Arbe'-ren aldeko manifestazioa

Eugenio Barrutiabengoa *Arbe*-k 18 urte daramatza Venezuelan. Egun, ordea, Espainiako Gobernuak *Arbe*-ren estradizioa eskatu dio Venezuelako gobernuari.

Estradizioaren eskaeraren kontra egiteko manifestazioa izan zen zapatuan Arrasaten, eta besteak beste, *Arbe*-k Venezuelan bizi izateko dituen eskubideak aldarrikatu zituzten. Euskal errefuxiatuek eskubide hori lortzeko, Batasuneko hainbat ordezkari, tartean Xabier Zubizarretak, Venezuelara bidaiara egin dute.

Monteko 'porra'-n errekorra

Bostehun eta hirurogeita hamar. Horiexek dira Tourreko *porra*-n parte hartzen ari diren taldeak. Kontua da hainbat eta hainbat izango direla Tourra interes bereziz jarraituko duten arrasatearrak, diru dezente dago-eta jokoan.

Porra-ren irabazleak 8.000 euro eskuratuko ditu, *porra*-n batutakoaren %40. Bigarrenak %25 eskuratuko du eta hirugarrenak %12,5 eskuratuko du. Hori gutxi izango balitz, laugarren eta hamargarren postuen artean geratzen direnek %2,5 eskuratuko dute.



Santa Marinako jaiak

Joan den asteburuan, Santa Marinako jaiak izan ziren, eta bertara hurbildutakoek ederto pasatu zuten. Egubakoitzean, Los Pérez de Nochistlán mariachien kontzertua izan zen; zapatuan, besteak beste, erretiratuen bazkaria izan zen, eta domekan, futbol partidua eta herri bazkaria izan ziren.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Oporrak oso gertu!

Uda aurreko garaiek, urte bukaerek bezalaxe, epe baten bukaera eta epe berri baten hasiera iragartzen dute. Ikasturtea, kurtsoa edo dena delakoa amaitu artean egindakoaren balantzea egiteko unea. Era berean, egunerokoak deskonektatu eta ardurarik zein lan barik egoteko premia eta gogo handia edukitzen dugu; pilak kargatzeko beharra

izaten dugu, hain zuzen ere. Guk, ARRASATE PRESS-koek, eta funtsean, Goiena Komunikazio Kooperatibako langile guztiek ere berehala oporrak hartuko ditugu, eta hori egiteko desiratzen gaude, noski.

Hala ere, lasai egon, esku artean duzuen ARRASATE PRESS ez da uda aurreko azkena izango. Ale hau irakurtzen duzueneko,

hurrengo alea prestatzen ibiliko gara. Uda aurreko azkenengo alea eguaztenean, uztailak 24, jasoko duzue.

Zutabe honetan bezalaxe, herrian dagoen giroan erraz antzematen da oporrak oso gertu daudela. Galdetu bestela bidaiara agentzietako-
ei, adibidez, zoratu beharrean egongo dira-eta. Gehienok, gainera, kanpora joateko zaletasuna daukagu, bueltatzerakoan, aurrez utzitako lanak eginda egongo diren ustearekin.

ASTEKOIRUDIA



IKER BARANDIARAN

ARRASATEKO ZIRKULAZIOARI NEURRIAK JARTZEN SAN ANDRESEN

Jakina da urte batetik bestera gero eta auto gehiago daudela. Auto gehiago, eta errepide eta kaleak berdinak. Arazoa gero eta nabarmenagoa da, eta San Andres auzoan biribilunea egiten ari dira. Herrian gero eta biribil gehiago daude, eta semaforoak baino eraginkorragoak direla aspaldi gera-

tu zen argi. Kolektorearen lanengatik, edo errepideak konpontzeko lanengatik, San Andres auzoa ez da batere txukun egon. Bizilagunek kamioi, indusmakina eta gabiri artean bizi behar izan dute, baina lanak apurka-apurka amaitzen ari dira, eta auzoa laster behar den moduan geratuko da. /X.U.

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Aretz

Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

GIZARTEA/ 'Arrasateko Emakumeak XX. Mendean' liburua aurkeztu zuten martitzenean

Lehenengo aldiz, Arrasateko emakumeen historia, eurek zuzenean kontatuta



Liburuaren aurkezpenean izan ziren, ezkerretik hasita, Sagra López, Leire Aperribai, Utzune Urrizalki, Amaia Martiartu eta Jone Astigarraga.

UBANE MADERA

Arrasateko historiaren gaineko beste liburu batek argia ikusi du oraino asteen. Orain arte askorik landu barik zegoen gaia aztertu du, gainera: herriko emakumeen historia. **Arrasateko Emakumeak XX. Mendean** izena ipini diote eta martitzenean aurkeztu zuten.

Udaletxeko areto nagusian aurkeztu zuten liburua. Han izan ziren, besteak beste, Udaleko Emakume Saileko ordezkariak eta Arrasateko Emakumeen Kontseiluko, Ekin Emakumeak taldeko eta Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentroko ordezkari bana. Izan ere, **Arrasateko Emakumeak XX. Mendean** liburua Emakumeen Kontseiluaren eta herriko Udalen artean pentsatu eta plazaratu dute. Aurkezpen ekitaldian adierazi zuten liburua publikatzeko arrazoi nagusia salaketa izan dela. Utzune Urrizalki zinegotziak hartu zuen hitza eta honakoa adierazi zuen: "Orain arte Arrasateko historia partziala izan delako, hau da, orain arte kontatu diguten historian protagonista bakarra egon delako, gizona, eta gu, emakumeok, ez gara agertu egiten (...). Azken baten, Arrasateko gizarte, politika, ekonomia, kultura, ingurua... Nabarmendu gura dugu gaur ezagutzen dugun Arrasate hau hemengo emakume eta gizonen egindako lanari esker sortu dela". Aldarrikapen horrekin segituz, Arrasateko emakumei eskai-

ni diete liburua: "Hemen egon garela eta gaudela, eta Arrasateko historia gure historia ere badela, eta gu barik ez dagoela ezer (...). Konturaraziko digu orain arteko historia ofizialan ezkatatuta egon garela (...). Justiziaren izenean emakumeon bazterkeria historian (zein beste arlo guztietan) justifika ezina izateaz gain, historia bera faltsutu egiten du. Bada garaia dagokigun errespetua eskuratzeko".

BOST ATAL

Kronologiaren arabera, bost atalatan banatu dute liburua: mende hasiera, Errepublikan, Gerra Zibila, Frankismoa eta mendearen amaiera. Nahiz eta horren denbora tarte zabala landu, liburua laburra eta irakurterraza da. Argazki eta elkarrizketa asko dago, adibidez. Eta, euskara aldetik, euskara batua eta Arrasateko euskara, biak erabili dituzte.

Mendearen hasierari begiratu gero, emakumea etxekoandre lanean, legearen aurrean, lanean eta fabriketan, eskoletan... zelan konpontzen zen kontatu dute, baita garai hartan zeintzuk ziren emakumeen "lekuak" eta lanbideak ere.

II. Errepublikan, besteak beste, **Emakume Abertzaleen Batza** eta **Margaritak** taldeak aztertu dituzte. Eta garai hartan ezkontza zibila eta abortatzeko eskubideak indarrean zeudela ere aditzera eman dute.

Gerra Zibilari dagokion atalean emakume askok sufritu zituzten bonbardaketak dira hizpide,

baita eraso sexistak edo umiliazkoak ere.

Frankismoa dator segidan. Gerra ondorengoko urteak, erlijioaren garrantzia, Sección Femenina eta horrelako taldeak, eta, amaiera aldera, kooperatibak dira aztergai atal horretan.

Eta, mendearen bukaerara iristean, mugimendu feminista aztertzen du liburua. Arrasateko Emakumeen Asanblada, Aizan!, Egi-

zan, Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentroa eta Ekin Emakumeak taldeen lanaren berri ematen du, adibidez.

AMA BIRJINA IZAN BEHAR

Liburua irakurriz gero, jakingo dugu XX. mende hasieran sendagileek emakume izatearen definizioa sortu zutela: **XX. mendeko ama Ama Birjina Santua izan behar da, garbitasunari, medi-**

kuntzari, pedagogiari, gizalegeri, etxeko lanei eta beste abar luze bati buruzko ezagutzak izan behar ditu. Amatasuna gizarteko betebeharra da eta norberaren gururien eta desiren gainetik dago. Horrelakoa izan behar da ama egokia. Geroago, hasierako frankismoaren emakumearen irudia oso antzerakoa zen: Emakumea txakuna eta zuhurra izan behar da, isiltasuna maite behar du, moderatua, xumea

"Konturaraziko digu orain arteko historia ofizialan ezkatatuta egon garela"

"Frankismoaren aurretik, emakumeak gogor jasan zuen gerraren bortizkeria"

"Esan euskun, hamen emakumeak ein bidauela lana Ameriketara da moduan"



Emakumea etxetik kanpo, lantegian, aspaldi ari dela lanean erakusten du liburua.

ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN LIBURUA



'ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN' LIBURUA

Argazkiak ondo sinbolizatzen du garai hartan gizonetako emakumearen gainean zuen eragina eta ezarritako inposaketa.

eta simpletasun duinekoa, emakume santua eta lotsatia, begirune kristaua eta zintzoa, eta bere bertute nagusia ezkonduko bikotearen zoriontasuna lortzea da; bertute horrek umiliazioen aurrean, duintasuna eta errespetua bueltatzeko ahalmena emango dio eta samintasunaren aurrean, poza bueltatzeko ahalmena.

Baina, frankismoaren aurretik, eta nahiz eta askok ezezkoa uste, emakumeak ere gogor jasan zuten gerra zibilaren bortizkeria: Abenduaren 22an, Santo Tomas egunean, bestetan baino animazio gehiago zegoen kalean. Kanpatek hegazkin errepublikarren dorrera iragartzen zuten, preso zeuden 77 lagunak atera zituzten, baita emakume eta haur nazionalistak ere, eta Udaletxearen plaza erdian ipini zituzten.

LANTOKIAN

Bestalde, sarri pentsatu dugu emakumea duela gutxi hasi zela lantegian. Eta ez da horrela. Zailtasunekin, eta gizonak baino balantza eskasagoetan, baina Arrasaten emakumea aspaldi ari da etxetik kanpo lan egiten. Horren adibide, liburuan datorren honako pasadizo hau, 15 urterekin Cerrajeran lanean hasi zen neska

batek kontatutakoa: *Sartzen giñan fabrikara 8etan, baiña jaikiten nintzen ogetik 6retan, lenengolenengo faten nintzen mezetara 6:30ean edo 7etan (...). Mezetatik urten da gero habitasiñuak garbitu, etxeko aurrekaldeko habitasiñuak ta atzekuak ixten nauen ba geroko, fabrikatik natorrenerako (...). Egoten nintzen kansaute ze destaju eitten nauen, geraketan ziñen... (...). Fan etxera eguerdixan, fregaua ein ariñeketa baten ta 1:30ean sartzen zan fabrikara (...).* Horrekin batera, liburuak kontatzen du zelangizonen espaziue zan

kalie, gizonen eukien espazio zabalak, frontoiek, kanpo futbolak, igerilekuek, tabernak, soziedadeak... hoiak danok zien gizonen terrenuak.

KOOPERATIBISMOA

Arrasaten egonda, aipamen berezia egiten diote kooperatibismoari: *Esan euskun, hamen emakumiak ein bidaulea lana Ameriketant da moduan, que la mujer tenía que trabajar.* Hitz horiekin kontatzen du emakume batek zein zen On Jose Maria Arizmendiarrrietak, Arrasateko kooperati-

bismoaren bultzatzaileak, 60ko hamarkadan zuen pentsaera. Horren emaitza izan zen, esate baterako, Auzo Lagun: *Taldeentzat janariak prestatzea, eraikuntzetako garbitasuna egitea, beste enpresa batzuei eskulana eskaintzea, eta haurrak zaintzea (Umezaintza), hori egiten zuen Auzo Lagunek.*

MENDEAREN AKABERA

Mendearen bukaeran, feminismoarekin batera, hemen emakume taldeak sortu ziren. Legez kanpo hasieran eta, inongo laguntza barik: *Bortxaketak, tratu txarrak... salatzea tokatu zitzaigun,*

udaletan ez zegoen-eta zerbitzurik (...). Orduan, antolatuta geunden emakumeok egiten genien kasu emakumeei, entzuten genituen... eta lehenengo egin genuen gauzetako bat abortatu ahal izateko helbideak ematea izan zen.

Horrelakoak eta gehiago ageri dira. Bi urtean egindako ikerketa lanaren emaitza da. Eta, duda barik, askorendako sekula entzun bakoak edo etxekoei bakarrik entzundakoak irakurri ahal izango ditugu liburuan.

Gauzak horrela, gaurtik aurrera herriko liburu dendetan dago salgai, hamar eurotan, edozeinek erosi ahal izateko.



'ARRASATEKO EMAKUMEAK XX. MENDEAN' LIBURUA

Garairako modernoak eta gizonen gauzak zirenak ere egiten zituzten emakumeek.

Gaur egun, zein da emakumearen egoera?

Horri erantzuteko, Malen Errastirengana jo dugu. Emakumeen eskubideen defentsan eta berdintasunaren aldeko borrokan, Arrasateko erreferente da hura. Hauxe esan digu: "Gizarte modernoan eragin handiena izan duen ekarpena da feminismoa. Atal guztietan duen eragina nabarmena da: teoriarik, lortutako helburuetan, bizi izateko modu berrietan eta sorrarazi eta gizarteratu dituen balioetan.

Neurri handi baten, mugimendu

feminista lorpen horien bultzatzailea izan da. Bere eraginari esker, emakumeek lehen baino gehiago parte hartzen dute gizartean. Baina emakumeen parte hartzeko moduan aldaketa izan da: eduki politiko argia duen mugimendua errebindikatiboa parte hartzeko beste modu batzuegatik aldatu da: kultura elkarteak, aisialdikoak, sozialak... baita talde garrantzitsuak eta gizartean indar handia dutenak ere. Berdintasunaren borrokan dugun

erronketako bat gizonen inplikazioa da. Feminismoa emakumei zein gizoni dagokie, gustuen, beharren eta sinesmenen arabera libre izan daitezkeen pertsonekin egindako gizarte eraiki gura bada. Garrantzitsua da geroago eta gizon desberdin gehiago agertzea, gizon gazteendako erreferente izateko, berdintasunean oinarritutako gizarte batean bizitzea zer den esplikatzea eta gizonak izateko modu berrietan parte har dezatela.

INMO f3  **INMO f3**
 inmobiliaria **SARE** inmobiliaria

Erdiko kalea 26.
 ARRASATE
 Tel.: 943 79 12 79

- Etxebizitzaren salerosketarako sare garrantzitsu bat gara.
- Gipuzkoan 14 zentro elkar lanean.
- Etor zaitez gu ezagutzera. Eskerrik asko.

Ireki berria Arrasaten!

Garaia Berrikuntza Gunea eraikitzeako plan partziala, onartuta

UBANE MADERA

Oraingo asteko Gobernu Batzordeak onespina eman dio Garaia Berrikuntza Gunea egiteko proiektuaren plan partzialari. Behin-behineko onartu dute plana. Orain jendaurrean ipiniko dute, irailaren 15era arte, alegazioen bat duenak aurkezteko.

Garaia plan partzialak proiektu horren nondik norakoak azaltzen ditu. Adibidez, txosten horrek esaten du Garaia Berrikuntza Gunea Garagartza auzoko irteeratik eta Udalaizen magaletik geru kokatuko dela.



ARTXIBOA

'Goiru' baserria eta 'Gautxori' inguruko etxebizitzak bota egingo dituzte.

GARRANTZIA ESTRATEGIKOA

Arrasatek duen garrantzia estrategikoa aipatzen dute, kokagune hori aukeratzeko: kooperatiben garrantzia, unibertsitatearen presentzia, Ikerlan Zentro Teknologikoa Arrasaten dagoela, edo lurra lortzeko aukera. Guztira, 440.000 metro koadro pasatxo erabiliko dituzte Garaia egiteko. Parke horretan, ikerketarekin eta ikasketekin lotutako eraikinez eta guneez gain, ikasleendako etxebizitzak, etxebizitza pribatuak eta bestelako zerbitzuak izango direla ere kontatzen du txostenak.

Baita, Uribarri auzotik pasatzen den erreka azaleratuko dutela, Gernika oinezkoen pasealekua haraino iritsiko dela edo Garaia, Mendibarren eta Trefasa Uribarri etorbidearekin lotzeko biribil berri bat egingo dutela ere.

Garaia egiteko ez dituzte botako *Kallamendi*, *Markulete*, *Mendietxebarri*, *Goirugain* eta *Goiruazpi* baserriak. Bai, ordea, *Goiru* baserria eta *Gautxori* inguruko etxebizitzak. Baita Atxa zerrate-

gia eta Muñoa lantegia ere. Garaia- ren helburu nagusia zein den ere esaten du txostenak: nazioarte mailako espazio bat sortzea, kalitadeduna, eta epe luzera, berrikuntza teknologikoaren merkatuan ikerketa bultzatzen lagunduko duena. Behin plan partziala behin betiko onartuta, lanak adjudikatuko dituzte eta gero, lanok egiten hasiko dira. Urte amaiera inguruan makina hondetzaileak ikusiko ditugu Uribarri aldean.

Datorren urterako eraikiko dute Arrasateko Industrialdea

UBANE MADERA

2003. urterako Debagoieneko Industrialdeak beste industria eremu bat izango du hemen, Arrasaten. Hain zuzen ere, Markuletan eraikiko dute Arrasateko Industrialdea. 40 enpresatik gora izango dira.

2001. urtean sortu zen Debagoieneko Industrialdea SA, Aretxabaletako, Oñatiko eta Bergarako industrialdeek bat egin zutenean. Orain, Arrasate ere sartu da akziodun moduan, eta ondorioz, datorren urterako Debagoiene-

ko Industrialdeak eremu berri bat izango du Arrasateko Markuletan. Berrogei enpresatik gora ezarriko dira Arrasateko industrialdean eta 300 lanpostu sortzea aurrez ikusi dute.

Oñatin lau industrialde daude, Aretxabaletan bi eta Bergaran bakarra. Arrasatekoa batuko zaio horri guzti horri. 34 mila metro koadro izango ditu, guztira, industrialdeak.

BITXIKERIA 'TELLAMENDI' BASERRIAN

Industrialdea eraikitzeke lehenengo fasea abian da ea apiril-rako amaituta egotea espero dute.

Bigarren zatia, berriz, datorren urterako egingo dute. Hain zuzen ere, bigarren zatiko lursailean *Tellamendi* baserria dago, eta bitxikeria gertatu da baserri horrekin. Izan ere, aspaldiko laba bat agertu da baserrian. Ondare garrantzitsua ei da hori, izan ere, Gipuzkoan bakarrik bi baserri-tan egiten zituzten teilak. Hori dela eta, Arrasateko Udalak eta Aranzadi elkarteak labea babes-teko eskatu zioten Debagoieneko Industrialdeari, eta halaxe egingo dute: industrialdea eraikitze-rakoan, labea txukundu egingo dute eta ikusgai izango da.

Isabel Gallastegi Eusko Alkartasuneko kidea hil da



UBANE MADERA

Arrasateko Udaleko zinegotzi ohi Isabel Gallastegi hil egin zen joan den martitzenean. Zortzi urtez izan zen zinegotzi Arrasateko Udalean eta beste hiru urtez legebiltzarkide.

Martitzen gauean hil zen Isabel Gallastegi, EAko kidea. Donostian hil zen, Poliklinikan, minbiziak jota. 36 urte zituen eta bi seme-alaba. Hileta elizkizunak, berriz, egunean izan ziren, parrokan. Arrasaten bizi zen, Mezatzerreka auzoko Etxebarri baserrian. Zuzenbide ikasketak egin zituen eta abokatua zen.

Baina, Arrasaten, abokatua

izatearren baino, zinegotzi izatearren ezagutzen genuen. Hain zuzen ere, Eusko Alkartasuneko ordezkari izan zen Mondragoeko Udalean zortzi urtez, 1991. urtetik 1999. urtera arte. Hortaz, bi legealdi egin zituen: 91tik 95era arte lehenengoa eta 95etik 99ra artekoa, bigarrena. Lehenengo legealdian Gazte batzordeko lehendakari izan zen eta, bigarrenean Zerbitzu batzordekoa. Gainera, hiru urte eman zituen Legebiltzarrean.

POLITIKATIK ALDENDUTA

Azken legegintzaldian, berriz, politikatik aldentzea erabaki zuen eta bi urte egin ditu gaixotasunari aurre egiten. Goian bego.

Uda baino lehenagoko osoko bilkura egin du gaur Udalbatzarrak

Bilkura berezia izan du gaur Udalbatzarrak Udalean. Izan ere, gaur egin dute udako oporrak baino lehenagoko azken osoko bilkura.


Hamaika gai zituzten aurrez ikusita zerrendan. Horien artean, adibidez, Leintz Garraioak enpresaren eta Udalaren arteko hitzarmena eguneratzea aztertu behar

zuten zinegotziek; baita Arrasateko gune berde, lorategi, parke eta antzerakoak zaintzeko zerbitzua kontratatzeke baldintzen onespina ere.

Bestalde, lanpostu berriak sortzeagatik enpresei laguntzeko programa erregulatzeko araudian zenbait zuzenketa egin beha-

rra zuten. Eta azkeneko puntuetan, aurtengo aurrekontuetako bi kreditu aldatzea proposatu diote Udalbatzarrari.

Edozelan ere, albiste hau idaztean bilera egin barik zegoenez, ez dugu jakiterik zeintzuk izan diren Udalbatzarrak hartutako erabakiak.



Domekan eta astelehenean, Maalako jaiak

Domekan, Errabalean hil diren guztien omenez San Frantziskoko meza esanez ekingo diote Maalako jaiak. Meza ostean, erretiratuendako luntxa emango dute Plus-Ultran. Astelehenean, 08:00etan, etxafuegoak jaurtiko dituzte; 16:00etan, ume jolasak eta txokolate-jana; 19:00etan, trikitia; 21:00etan, afaria, estradetan; 22:30ean, musika; eta 23:00etan, suzko erruberak.



SANTA MARINAKO JAIETAN ONDO BAINO HOBETO

Joa den astean, Santa Marina auzoko jaiak izan ziren, eta hango bizilagunek bikain pasatzeko ekintza mordera izan zuten. Pilota eta futbito txapelketak, umeendako jolasak, herri bazkaria, trikitilarien kalejira, *drag-queen*-ak, dantzaldia...

Zapatuan eta domekan ez zen atsedenerako unerik egon, eta nahiz auzotarrek nahiz kanpotarrek ondo baino hobeto pasatzeko aukera izan zuten. ARRASATE PRESStik eskerrak eman nahi dizkiogu Sebas Gorosabeli, harenak dira-eta argazki hauek.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

'DIRTSURF'-A

Ura eta elurra alde batera utzi, eta asfalto gainean surfa egiteko aukera

Dirtsurf edo *Devilsurf* delakoak urtebete baino ez darama Estatuan, eta gero eta gehiago animatzen dira kirol berri hori probatzera

XABIER URZELAI

Surfetik datorren beste kirol baten berri emango dizuegu. 'Dirtsurf'-a edo 'Devilsurf'-a da kirol hori eta arrasatear bat, Zigor Vega, arduratu da kirol hori zertan datzan erakusten. Elurrik gabeko hilabeteak luze egiten dira, eta zerbait asmatu behar da 'snow'-aren behar izan hori asetzeko.

Gizakiak sekulako abilezia dauka gauzak asmatzeko, eta kirola egiteko bada, mugak askoz gehiago murrizten dira. *Snowboard*-a oso ezaguna da hemen, baina Australiar aukera txikia daukate elurretan ibiltzeko. Arazo horri berehala jarri diote konponbidea, *Dirtsurf*-arekin. Kirol hori orain dela hiru urte asmatu zuten kanguruaren lurraldean, eta orain dela urtebete iritsi zen Espainiako Estatura. Euskal Herrian hainbat lagunek praktikatzen dute kirol hori, eta Elgoibarren elkartzen dira. Zigor Vega da kirol hori egiten duen mondragoetar bakarra, eta Zigorrekin egin dugu hitzordua, Arantzazun.

Koadrila ederra azaldu da, baina bost lagun bakarrik jaitsiko dira *dirtsurf*-arekin Arantzazutik. Gainerakoek autoak jaitsiko dituzte, Oñatira iritsitokan berriro ere gora egiteko. Egin beharreko lehenengo lana da gorpilak behar den moduan lotu, airez bete eta frenoek lana behar den moduan egingo ote duten ziurtatzea.

BABES-NEURRIAK, EZINBESTEKOAK

Dirtsurf-aren gainean 80 kilometro orduko abiadan jaistea ohikoa da. Hala ere, munduko errekorra 110 kilometro orduko abiadan dago. *Dirtsurf*-a prestatzen ari diren bitartean, Zigor Vegarekin eta Ibai Lópezekin berba egiteko aprobeztatu dugu. Argi daukate kirol horrek ez daukala zertan arriskutsua izan, baina hobe da neurriak hartzea: "Poliki joatea gaitza izaten da, eta hobe izaten da abiada apur bat hartzea. Bizikletarekin moduan gertatzen da: poliki joatean bizikletak dardara handiagoa egiten du, baina abiada hartzerakoan errepidera itsatsi egiten da". Edozelan ere, Zigorrek argi dauka babes-neurriak hartzea ezinbestekoa dela: "Azken baten, argi eduki behar



XABIER URZELAI

Euskal Herrian hamabost lagun inguru ari dira kirol hori egiten, eta Estatu osoan 70 baino ez daude.

da errepidean behera goazela eta asfalto gogorra dela. Kaskoa eramatea gomendatzen da; horrez gain, belaun-babesak eta ukondobabesak izanez gero, hobeto".

Urrunago joaten direnak ere badaude; izan ere, mendiko bizikletekin jaitsierak egiteko traje bereziak daude, eta traje horiek aproposak dira *dirtsurf*-a beldur barik egiteko. Laster Asturias aldera joateko asmoa daukate: "Gure asmoa munduko errekorra gaintzea da, eta Anglirú-ko portuan aldapa ederrak daude. Hantxe ahaleginduko gara munduko errekorra gaintzen".

JAITSIERA IKUSGARRIA

Guztia gertu dagoenean, gozatzea baino ez da geratzen. Bost lagunek Arantzazutik beheranzko bidea hartu dute, baina hasierako aldapetan ezin daiteke abiada handirik hartu. Horrez gain, gaurko helburua ez da portua abiada bizian jaistea, kirola ezagutzea baizik. *Snowboard*-a egiten duenak arazo gutxi izaten eizitu *dirtsurf*-a egiteko: "Azken baten, nahiko bertsuak dira. Gorputza-

ren posizioa nahiko antzerakoa da eta bihurtuak hartzerako orduan ere mugimendu bertsuak egin behar dira".

Elurretan ibiltzea, berriz, errazagoa eta seguruagoa da. Horrez gain, elurrak aukera asko eskaintzen ditu, jauziak egiteko, batez ere. "Helburuetako bat apurka-apurka *snow*-arekin egiten ditugun *trukuak* *dirtsurf*-arekin egitea da, baina horretarako asko ahalegindu beharko gara".

Orain arte, asfalto gainean ibili dira, gehienbat, baina belarretan ere bikain ibil daiteke: "Jauziak egiteko arrapala bat daukagu, baina jauziak belarretan egiten ditugu. Bestalde, asmoa daukagu Urbiatik *dirtsurf*-arekin jaisteko. Horretarako, baina, goraino igo behar dugu traman kuluekin, eta hori ez da horren gustukoa".

Kirol hori hobeto ezagutzeko gogoz geratu zarenok www.dirtsurf.com webgunera sartu baino ez duzue. Euren esanetan, berriz, horrelakoak egiteko, gauzak ez dira birritan pentsatu behar, bestela, ez dira egiten.



XABIER URZELAI

Jaitsiera egin aurretik *dirtsurf*-a ondo dagoen ziurtatzea beharrezkoa da.

"Munduko errekorra 110 kilometro orduko abiadan dago, eta hori gaintu gura dugu"

"Asfalto gogorra da eta babes-neurriak hartzea gomendagarria da, kaskoa, gutxienez"

"Orain arte, asfalto gainean ibili gara, baina Urbiatik jaistea ere bururatu zaigu"

Hona hemen 2.Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

WUSHU KUNFG FU

Europako Wushu Kung Fu Txapelketa jokatu da asteburuan Arrasaten

Bihar, zapatua, hasiko den txapelketan, Europako eta Munduko selekzio indartsuenez gain, Euskal Herriko Selekzioak ere esku hartuko du

XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan Uarkape pilotalekua pilotariz beharrean borrokalariz beteko da; izan ere, Europako Wushu Kung Fu Txapelketa jokatu da bertan. Bi egunez borroka-arteak izango dira nagusi Arrasaten, eta Euskal Herriko Selekzioa ere txapelketan izango da.

Asko dira Euskal Herriko Selekzioaren ofizialtasunaren alde aspalditik lanean dabiltzanak, eta Wushu Kung Fu kirolak dagoeneko lortu du hori. Euskal Herriko Selekzioa gainerako Europako selekzioekin lehiari arituko da bihurtik aurrera Arrasaten jokatu den Europako Wushu Kung Fu Txapelketan. Txapelketak bi egun iraungo du. Bihar, zapatua, goizean hasiera ekitaldia izango da eta Taichi, Sanshou eta Tao Lu borroka izango dira.

Egun handia, berriz, domeka izango da, orduan jokatu dituzte-eta finalak. Goizeko hamarretatik ordu bata arte borroka

izango dira ikusgai, eta, horren ondoren, borroka-arten maisu handien erakustaldia izango da.

EUROPAKO SELEKZIOAK BAKARRIK EZ
Txapelketa benetan ikusgarria izango da, Europako lurraldeetako ordezkariek aritzeaz gain, Brasilgo, Txinako eta Argentinako selekzioak ere izango dira-eta, besteak beste. Joan den urtean, urrian, Euskal Herriko Selekzioa Japonian izan zen Munduko Wushu Kung Fu Txapelketan, eta euskaldunek oso lan txukuna egin zuten: urrezko eta zilarrezko domina bana eskuratzeaz gain, gainerako partaideek ere lan polita egin zuten.

Euskal Herriko Selekzioko kideei Europako Txapelketa Euskal Herrian antolatu behar zela otu zitzaion, eta Arrasateko Udal prest agertu zen. Horrenbestez, beste borroka-arte bat ezagutze-ko aukera egongo da asteburuan.

Hala ere, herritarrondo ez da berri-berria izango, ekainean, Seber Altuben, Wushu Kung Fu erakustaldia egin zuten-eta.



ARTXIBOA

Ekaineko erakustaldia ikusi eta gero, asteburuko txapelketa ikusteko modukoa izango da, duda barik.

	<p>Ospatu gurekin 10. urtebetetzea</p>	<p>Parte hartu 600 € uztaileko azken zozketan.</p>	

Sari-txartelak Ibai-arte ko komertziotan aurkituko dituzue.

Maalako er

JAIETAKO EGITARAUA

UZTAILAK 21, DOMEKA

12:00etan: San Frantziskon meza, Errabalean hil diren guztien oroimenez.

13:00etan: Kaleko jubilatuentzat Plus Ultra tabernan luncha.

UZTAILAK 22, ASTELEHENA

08:00etan: Etxaflero jaurtiketa.

17:00etan: Ume jolasak eta txokolatada.

19:00etatik aurrera: Txikiteoa.

21:00etan: Afaria Errebalekoentzat.

22:30etatik aurrera: Musika eta dantza.

23:00etan: Suzko erruberak.



**OKENDO
KIROLAK**

Maalako Errebala, 13 behea
Tel.: 943 79 92 76 •ARRASATE



Monte taberna

Maalako Errebala, 11
Tel.: 943 79 20 56

ARANBURU JOSTUNDEGIA

Urte askoko esperientzia
zuen esku

Maalako errebala, 23
ARRASATE
Tel: 943 79 13 07

URREA

BITXITEGIA

Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 77 02 23

ARRASATE ORTOPEDIA

Maalako Errebala 8
Tel.: 943 77 20 78

Osakidetzarekin eta
Lagun Aroekin hitzartua

Oinaren tratamendua ordenagailu bidez
Pedikura ortopedikoa eta oin-osatzea

Oinaren azterketak: tendinitisak, gerialdeko minak, min zerbikalak eta bizkarreko minak antzemateko.

Umeak: hainbatean behin egiten diren azterketa konparatiboak, umeari egin zaion zuzentzearen jarraipena, egiteko.

Materia bigunen erabilera: oin erreumatikoendako, diabetikoendako eta neurologikoendako.

CAD/CAM sistema: Plantillen fabrikazioan (berehala ematen dira).

Neurrira eginiko oinetakoak.
AEBetatik inportatua.

Bizi kalitate hobea • Guztia ordenagailuz kontrolatua

DEBA GARAIA

Inmueble
eta finantza
agentzia

Maala, 11
943 77 13 02

11 urte zure zerbitzura



Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
Tasazioak
Fiskal Aholkularitza
Errentamendua
Kontratuak

Udalatx
Inmobiliaria

Maalako Errebala, 27 behea
943 79 59 99

AE ELKORO

- Elektrizitatea
- Antenak
- TB, Bideo eta Hifi konponketak

Maalako Errebala, 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86

Plus Ultra taberna

Maalako Errebala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

balako jaiak



*Bitxitegia
Erlojutegia*


Maala 5 • Tel.: 943 79 19 25

UNITED COLORS OF BENETTON

Maala, 13
Tel.: 943 79 50 78

**Express
Express
Express**
Kafetegia

Maalako errebala 8
Tel.: 943 77 3 87



Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

Concepción
Tamayo

DERMATOLOGOA

Laser tratamenduak
Maalako Errebala, 23-2A
Tel.: 943 77 05 57



Laster

txuntxurru berde

denda berria!

- Irailetik aurrera Maalako Errabaleko denda berrian aurkituko gaituzue.
- Umeendako zapatak eta aukera zabala arropatan.
- Bisita gaitzazu irailtik aurrera Maalako Errabaleko 8an (Denda zaharraren parean).

Maalako Errabala 23. Arrasate. Tel.: 943 77 18 47

KULTUR ERROTA/ Labrit musikariak kontzertua emango du

Labritek 'Nori egin so!' diskoa aurkeztuko du bihar Ferrerrias kaleko plazatxoan

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, 23:00etan, Ferrerrias kaleko plazatxoan Usurbilgo Labrit musikariak kontzertua emango du. Kontzertua Ferrerrias kalean emango du, Kultur Errotaren ekitaldien barruan, eta AEDk antolatu du. Emanaldia doan izango da.

AEDk kontzertu berezia ekarriko du bihar Arrasatera. Kultur Errotaren barruan, Usurbilgo musikari gazte batek, Labritek, kontzertua emango du bihar gauean, Ferrerrias kaleko plazatxoan. Labritek hogeita lau urte besterik ez dauka, baina dagoeneko bi disko grabatu izan ditu; biak Oihuka diskoetxeak kaleratu ditu.

BIGARREN DISKOA AURKEZTERA

2001eko irailean, Labritek *Nori egin so!* izeneko diskoa grabatu zuen. Abesti guztiak berak bakarrik egin baditu ere, diskoa grabatzeko talde baten babesa aurkitu zuen, eta ez edozelakoa, gainera. Baldin Bada, Minxoriak eta

Sustraia taldeetan aritutako Kandi Fernándezek, ekoizpen lana egiteaz gain, diskoan teklatuak jotitu. Horrez gain, Baldin Bada taldean aritutako Dani Riañok gitarrara jo du. Baxuarekin Sonora Candela eta Momau taldeetako Juanjo Falcon aritu zen, eta Jimi Arrabit (Itoitz) bateriarekin aritu zen. Eskola handiko musikariak izan zituen lagun, hortaz.


Labrit berak, ordea, gitarra jo eta abestu egiten du. Bere kantuetan desioek, bizitzak, askatasunak eta izateak izugarritzko indarra hartzen dute. Disko berriko hitz guztiak bi ezik berak eginak dira. *Euskarari bai* kantua, ordea, Sabin Muniategik idatzi zuen, eta *Maitasun gauetan laztanak bezala* abestia, Jose Luis Otamendik.

Labriten musika pop-roklean kokatu dezakegun arren, disko abesti bakoitzak ñabardurak dauzka: reggaea, *funky*-a eta erritmo latinoak ere ukitzen ditu. Era berean, bere kantuetan, Labrit lasaia, goxoa, leuna eta pausatua ere aurkituko dugu. Arrasaten emango duen emanaldian hura eta beste lagun bat arituko dira.



Kritikoen esanetan, Labriten kantuak lasaiak, goxoak, leunak eta pausatua dira.

arrasateko emakumeak XX. mendean



Azpimarratu gura dugu liburu hau emakumezkoei eskaini gura diegula, orduko zein gaurko emakumezkoei; gogora ekarri gura izan dugu emakumeen lana, eskubideen aldeko borroka, bizimodua, sufritu duten (eta dugun) diskriminazioa; hemen egon garela eta gaudela, eta Arrasateko historia gure historia ere badela, eta gu barik ez dagoela... ezer.



ARRASATEKO UDALA

ELKARRIZKETA

MARKELINE/ANTZERKI TALDEA

"Jenio biziko lana da DSO, eta desioa askea dela da bere mezueta bat"

LEIRE KORTABARRIA

Erreprimutako desioak, emakumezotasunaren erabilera merkantilista, anorexia gaitza, tratu txarrak, komunikabideen manipulazioa, inposaketaren aurkako asaldura... Artikulu bat? Ez, antzerki lan bat: 'DSO'.

Desioa da zuen azken antzezlanaren gaia. Zerenganako edo zeinenganako desioa?

Gure lan guztiek ideia jakin bat izaten dute ardatz moduan. Oraingo honetan, desioa bere zentzu zabalenean hartu dugu. Era guztietako desioen gainean egiten dugu berba, ironiaz eta jenio biziz: sexuarekiko, amodioarekiko, boterearekiko, diruarekiko... desioaren gainean. Antzezlan bakarra da, baina hainbat antzezlan txikiz osatua dago.

Anorexia, tratu txarrak, emakume izatearen erabilera merkantilista... Ukitu feminista du DSO-k?

Irakurketa asko ditu. Bai, badu ukitu feminista hori, baina bakoitzak egiten duen irakurketaren arabera da hori. Nabarmena da eszena zehatz bat, oso gogorra baina oso ederra, eta hor adierazten dugu *Printze Urdina*-ren kontua, emakumeak engainatzeko erabiltzen dena, gezur handia dela. Oro har, jenio biziko lana da. Desioa askea eta guztiona dela eta ezin dela kapitalizatu, hori da gure mezueta bat.

1986a ezker zabiltzate lanean. Lan berriak sortzea nekezago egiten zaizue ala ez?

Egia da geroago eta zailagoa dela norbera harritzea, baina ez besteak harritzea: horretarako, antzezlanaren alderdi estetikoak oso ondo antolatzea gustatzen zaigu.

DSO lana bereziki zaindu duzue alde horretatik, ezta?

Bai, hala da. Oraingo honetan, oso eskuzabalak izan gara alderdi teknikoarekin eta piroteknia-



MARKELINE

"Printze Urdinaren kontua emakumeak engainatzeko erabiltzen den gezurra dela esaten du lanak"

"Ikusleak parte hartzea gura dugu: mugitzera behartzen dugu, eta ikusmina sortzen diogu"

rekin. Argi eta soinu aldetik oso lan aberatsa da: 30.000 watt argi eta 5.000 watt soinu erabiltzen ditugu, eta, keinuz bakarrik egingako lana denez, soinu banda indartsua erabiltzen dugu. Ager-tokiak eurak ere altuera desberdinetan dauden plataformak dira. Ikusleak parte hartzea gura dugu: mugitzera behartzen dugu, eta ikusmina sortzen diogu.

Pirotekniaren erabilera antzerki talde kataluniarren-gandik ikasi duzue?

Gure erabilera oso bestelakoa da. Haien kasuan, piroteknia berarengan du balioa, zer edo zer erretzearengatik erabiltzen dute. Guk, ordea, piroteknia eszena bakoitzari egokitu diogu. Akaso ez da hain ikusgarria izango, baina guri iruditzen zaigu dramatikoki interesgarriagoa dela.

Hitzik gabeko antzezlanak izateak errezeloak pizten ditu oraindik publikoarentan?

Ez, guk adierazi gura duguna oso ulerterraza delako. Bestalde, horrek gure lanak atzerrira eramateko bidea ematen digu. *DSO* oraindik ez, baina beste lan zaharrago batzuk Frantzia, Belgika, Alemanian... Europa osoan antzeztu izan ditugu.

Arrasaten askotan izan zarete.

Gure lan ia guztiak eskaini ditugu hemen: *Armagedon*, *La Garbo S.A.*, *La vuelta al mundo en 80 cajas* ume antzerkia, *Aló*, *Europa?*, *Underground*... Arrasate geltoki finkoa da guretako. Bestalde, Markelinek ibilbide sendoa du, eta horrek leku askotara joateko atea zabaltzen digu.

Ospea eta irabazi dituzuen sari ugariak oztupo ala laguntza dira?

Bietatik; alde batetik, presioa suposatzen dute guretako, baina bestalde, abantaila handia dira, egin duzuna ondo dagoela eta interesgarria dela esan gura delako, eta bestela amestu ere ezineto jaialdietan parte hartzeko modua ematen digulako.



'Nothing Without' berria kalean dago

Arrasateko skate eta hardcore zale batzuek *Nothing Without* izeneko fanzinea kaleratu dute. Arrasateko eta ibarreko hardcore musikaren eta skate-aren zaleek fanzine hori aurrez ondo eza gutzen zuten. Hainbat ale kaleratu ondoren, duela pare bat urte, aldizkari hori kaleratzen zutenek lan hori egiteari uztea erabaki zuten.


Duela gutxi, ordea, *Nothing Without* egiten duen lagun taldea berriz bildu eta fanzinea berpiztea erabaki zuen. Esku artean daukagu lan horren emaitza: uda honetarako berrogei orrialdeko ale berezia prestatu dute.

Euro baten truke, Sergiok, Gorkak eta Anderrek hainbat erreportaje eta disko zein zuzeneko kritikak biltzen dituen fanzinea salgai jarri dute.

Skate-ak eta haren inguruko gaiek protagonismo handia dute aldizkariaren baitan. Beste alor nagusia musika da, eta hardcore musika estiloa nagusi da.

Nothing Without aldizkari arduradunek eta euren laguntzaileek idatzitako artikulu eta testuen artean, Santandergo Cementerio Show eta AEBetako Agnostic Front musika taldeei egindako elkarrizketak; kontzertuen gaineko kronikak; eta hainbat disko eta singleren kritikak. Horrez gain, poesia, komikiak, grafitiak eta skate-arekin lotutako hainbat artikulu ageri dira. Dagoeneko Arrasateko tabernetan salgai jarri zituzten ale guztiak saldu dira, baina berrargitaratu egingo dute.

PUB HAIZEA



TTUKUN

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



E, TXO!

BEGIRALEENDAKO IKASTAROA

Txatxilipurdi elkarteak datorren ikasturtean begirale ikastaroa antolatuko asmoa du. Ikastaroa egin gura duenak Txatxilipurdira deitu besterik ez du; telefono zenbakia 943 79 54 46 da; baldintza bakarra, berriz, hemezortzi urte beteta izatea. Argibide gehiago gurasu gero ere, Txatxilipurdira deitu behar da.

ESKERRAK UDALAKUETAN IBILITAKO UMEEI

Bestalde, Txatxilipurdik eskerrak eman gura dizkie udalaketan parte hartu duten umei. Baita haien gurasoei ere, Txatxilipurdi elkarteari emandako konfiantzagatik. Horrekin batera, guztiei uda ona pasatzea opa die.

ANGERREK LAPURDIKO MAKEA HERRIAN JOKO DU

Astebururako planik ez baduzue, jakin ezazue bihar, zapatua, Arrasateko Anger taldeak Lapurdiko Makea herrian kontzertua eskainiko duela, Eztanda taldearekin batera.

Gogora ezazue, era berean, gaur, egubakoitza, aterako dela Anger taldearen CDa, *Gara* egunkariarekin. Ikusten denez, apurka-apurka geroago eta gehiago ari da sartzan Arrasateko taldea Euskal Herriko musika esparruan.

FILM LABURREN JAIALDIA ANTOLATU GURAN

Uztailaren bukaerarako film laburren jaialdia antolatu gura dute gaztetxeko kideek. Era guztietako film laburrak ematea da helburua, baina, bereziki, Euskal Herrian egindakoak lortzen saiatuko dira. Film laburren jaialdia eginez gero, uztailaren 29an edo 30ean izango litzateke.

GUREGAIK/ ARRASATE ETA MAULE ARTEKO ELKARTRUKEA

Gaztetxeko hamasei gazte Mauleko jaietara joan ziren elkartrukean

IKER BARANDIARAN

Dagoeneko ospitale zaharreko gaztetxea itxita dago, baina gaztetxean lanean ibili diren gazteek ekimenak antolatzen jarraitzen dute. Joan den asteburuan, hamasei gazte Mauleko jaietara joan ziren hango gazteekin elkartrukean.

Arrasateko gaztetxekoek Mauleko gazte batzar batekin harremana dute. Elkar ezagutzeko asmoa erakutsi, eta Maulekoek arrasatearrei Iparraldera joateko gonbidapena egin zieten. Eta horrela egin dute.

ASTEBURUA, MAULEN

Hamasei lagun batu, autobus bat errentan hartu eta zapatu goizean Maulerantz jo zuten gazteek.

Mauleko lagunek oso harrera beroa egin zieten arrasatearrei, eta gazteak oso gustura etorri dira

Eguerdian heldu ziren arrasatearrek Maulera, eta Mauleko gazte batzarrekoek luncha prestatu zieten. Kanean Iparraldeko dantzak ikusi eta gazte batzuen lokalean bazkari ederra egin zuten. Horren ondoren, Mauleko gaztelua ikusi zuten, eta iluntzean, gazteen lokalean bi rock taldek



Arrasateko gazteak oso gustura ibili ziren Mauleko jaietan.

kontzertua eman zuten. Domekan, txikiteoa egin eta euskal presoaren aldeko kale bilkura baten

izan ziren. Gazteak oso pozik etorri dira Maulekoek egin dieten harrera beroagatik.

LOTSABARIK/ Eider Roa

“Txikitan, zabor-biltzaile izan gura nuen”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eider oporretan Marbellara joango da, baina aurretik gurekin egoteko tartetxo bat izan du. Gerora begira lanik ez izateak arduratzen duela esan digu, baina oraindik ikasketak amaitzeko ditu.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Egia esatearren, lau lanbide nituen buruan: suhiltzaile, zabor biltzaile, arrain-saltzaile edo izozki-saltzaile gisa. Orain ez dut horren argi.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Ezkondata, eta bi seme-alaba

izan gura nuke. Arrasaten bizi izaten, eta oporretan joateko kanpoan etxe bat edukitzea gustatuko litzaidake.

• Zein da, zure iritziz, adin ideala?

Hamazazpi edo hamazortzi urte bitartekoa; izan ere, adin tarte horretan ez zara oso gazte eta ez oso zahar ere.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Une honetan, ikasketei, familiari, lagunei eta osasunari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Aurrera begira lan barik gertatzeak.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Jendea aurkezten didaten

unean nahiko lotsatia izaten naiz, lehenengo harremanean, behintzat, bai.

• Zure bertuteren bat? Eta alde txarren bat?

Ezagutzen ez dudana jendea pixka bat ezagutzeko nahiko irekitzen naizela. Txarra, haserretzen naizenean jenio bizia dudala.

• Zure gorputzeko atalik gustukoena?

Bizkarra atsegin dut, betidanik. Ez dudanez askorik ikusten, ez naiz aspertzen.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Begiei, eta gero izateko erari.

• Arrasaten ligatzen da?

Nire uestez, bai.



ADINA: 14 urte • IKASKETAK: DBHko 3.maila • ZALETASUNAK: Flauta jotzea eta dantza
LIBURU BAT: 'Ostiralak' • FILM BAT: Umorezkoak eta beldurrezkoak • MUSIKA TALDEA: Etxakiti • KIROL TALDEA: Reala

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99

BEHEKODENDATIK

Rosarito Zubizarreta

ZUBIZARRETA GALERIAKUE

XABIER URZELAI

Rosarito Zubizarreta oñatiarra da, baiñe ezkondu barri Mondraguera etorri zan. Hori oin dala 38 urte izen zan, eta azkeneko 14 urteik dendan emun dittu lanien. Zenbat urte daukon esateko ez dauko iñungo problemarik, urteik baiño gehixago bizi-pozak inporta dau-eta. Eta hori, bizi-poza, sobran dauko Rosaritok.

- Amets bat?
Pakie munduen.
- Eta amets txar bat?
Hiltzie.
- Egin dozun azken biajie?
Kanarietara, martxuen.
- Txartel horixe, zeñei?
Politikuei.
- Eta gorrixe?
Hori be politikuei.
- Pelikula bat? Liburu bat?
Disko bat?

Paul Newmanen edozein / Egunkarixek bakarrik irakurten ditud / Danetik entzuten dot.

Drogak legalizauko zittukie?
Ba, ez dakit... Baietz uste dot.

Eta prostituziñue?
Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?
Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?
Bitalidadie.

Eta faltan?
Denpora librie.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?
Inguruko auzuek eta herrixen dagozen parkiek.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?
Gauetako seguridadie. Lapurra asko egin daue azkenaldixen.

Eta lehendakari izengo bazitze?
Horrenbeste gauza daguz...

Mendi bat?
Degurixa aldie eta Piriniuek.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?
Donostiara.

Ezagutu dozun pertsona inte-



X.U.

"Biher dan moduko kruzero baten gastauko neuke dirue gustora, baiña astebeterako ez, e?"

resante bat?
Aitte eta ama.

Eta ezagutu nahiko zeunkiena?
Ez jat iñor be okurriduten.

Telebisiñoko programa bat?
Dokumentalak.

Eta irratikue?
Albistiek eta musikie.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?
Biher dan moduko kruzero bat egitten. Baiñe astebetekue ez, e?

Bizio bat?
Mendire juetie. Baiñe ez dakit hori biziue dan.

Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeñekin?
Dirue daukonakin.

"Ezkontza-urteurren bat ahaztu ezkerro, onena erregalo bat egittie dala esango neuke"

Zure dendatik ze erregalauko zeunke?

Oparixe zeñendako dan...: gatzie bada, gauza bat, eta nagusixe bada, beste bat.

Dendako gauza kuriosuena?
Horrenbeste gauza daukogu...

Mondraguetarrak originalak gare erregaluek egitten?
Original-originalak ez; normalak, esango neuke. Jeneralien, gatziek eskaketan daue gauza bereziren bat-edo.

Ezkontza-urteurren bat ahaztu ezkerro, zela konpondu?
Duda barik, erregalo on batekin. Holakuek pasetan dienien erregalo on bat izeten da irtenbide onena.

NIREBIDAIAHURA / Amaia Agirre eta Libe Ramila

Londres / 2002ko uztailan

Amaia eta Libe Londres aldera joan ziren uztailko lehenengo bi asteetan, hil eta erdi pasatzeko asmoa zuten arren. Euren helburua, lana topatzea. Hegazkina hartu eta ordubetera Ingalaterra aldean ziren, euren abentura zelan bukatuko zen ez zekitela. Lehenengo astean lan bila ibili ziren arren, ez zuten ezer topatu, eta beste astebetuz turismoa egitea erabaki zuten.

Amaiak Aste Santuan hiria bisitatzeke aukera izan zuen, eta horrek animatu zuen udan lan bila joatera. Libe, iaz, lanean ibili zen hantxe, eta horrek konfiantza eman zion: "Hantxe dagoen gauza berezi bat da kultura eta arraza askotariko jendea topa daitekeela", diote bi gazteek. Horrez gain, Londresen ez ei du axola nor zaren, nahiz eta kanpotar itxurak urrunetik igarri.



"Kultura eta arraza askotariko jende asko dago Londresen"

Bi lagun horiek esan digute ia-ia Londres osoa alde batek bestera oinez zeharkatu zutela, hiri osoa ikusteko asmoz. "Metroan, egunez, lasai ibil daiteke, eta ez dago galtzeko arriskurik; gauzez, hobe da autobusez ibiltzea", baina kaleak ezagutu ezean, galtzeko aukera handia ei dago.

Gustatu zaien beste gauza bat Londresen ikus daitezkeen azokak dira. Denetarik ikus daiteke azoka handi horietan, baina Amaiak eta Libek ez zuten ezer erosi. Euren asmoa zen lana topatzen baldin bazuten azoka handietara itzultzea erosketak egitera. Hortaz, ez zuten diru askorik utzi hango azoketan.

Londresko gauak ez ei zituzten bizi izan; ostatu baten egiten zuten lo, eta goiz ixten zituzten ateak han. Edozelan ere, nahiko garestia iruditu zaie Ingalaterra: "Gure asmoa zen uda etxean igarotzea, dirurik eskatu barik, baina lana ez topatzeak eta han bizimodua horren garesti egoteak bidaia amaitzea eragin zuten". Edozelan ere, esperientzia polita izan dela uste dute biek ere, eta errepikatzeke asmoa erakutsi dute. Hori bai, Libek alde zurretik lana topatuta joango dela adierazi digu.

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Londresen edozein izkinatan aurki daitezke askotariko azokak.

KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

"PAL"

Burdindegia
Brikolajea
Tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

Hilbera
kafetegia

Uribarri Etorbidea
ARRASATE
Tel.: 943 79 22 70

Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



ARRASATE
Maialen Ramos
22an, 13 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Xabier Ramos
17ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Paula San Miguel
19an, 7 urte. Zorionak Arrasateko neskarik politenari! Aitatxo, amatxo eta Beñat.



ARRASATE
June Alberdi
18an, 3 urte. Zorionak, morroskila! Familiakoak eta Bergarako lagunak.



ARRASATE
Peio Errarte
18an, 13 urte. Zorionak, katxondo! Etxekoak.



ARRASATE
Kepa Juaristi
16an, urtebete. Zorionak! Familiakoak.



ARRASATE
Nerea Uribetxeberria
21ean, 3 urte. Zorionak! Etxekoak eta Aitor.



ARRASATE
Ibai Zeziaga
18an, 4 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Endika Landaluze
16an, 4 urte. Zorionak! Jone eta Ando.



ARRASATE
Mikel Mondragón
23an, 5 urte. Zorionak! Aitzol eta familia.



ARRASATE
Iana Garmendia
20an, 6 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Leire Eraña
17an, 21 urte. Zorionak, eta laztan handi bat! Etxekoak.



ARRASATE
Eider Ibarrodo
21ean, 7 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Iker Uribesalgo
16an, 3 urte. Zorionak! Aita, ama eta Deiane.



ARRASATE
Jose Luis Azkarate
21ean, urtebetetzea. Zorionak, aita! Ama, Cesar, Sergio, Larraitz eta Saioa.


Adi!

Hurrengo zenbakian, uztailearen 20tik aurrerakoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzenera arte jasoko dira ARRASATE PRESSko egoitzan.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku! Otalora lizentziaduna, 31.



WERU®

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain


PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape kortinak,
Kortinoba, testila...



Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko uztailaren 19a / 34. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Bosgarren urtez, erretiratuek euren astea izango dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL


Alaiak Elkarteak Erretiratuen Astea antolatu du uztailaren 20tik 27ra bitartean. Hainbat ekintzatan parte hartzeko aukera izango dute herriko erretiratuek, eta bazkari batekin emango diete amaiera ospakizunei. Ekintza guztietara joateko dei egin dute Erretiratuen asteko antolatzaileek.

Aramaioko Alaiak Elkarteak, azken bost urteotan moduan, Erretiratuen Astea antolatu du datorren asterako. Elkarteak 175 bazkideendako hainbat ekitaldi antolatu dituzte, eta helburua da, ondo pasatzeaz gain, erretiratuei informazioa eman eta euren artean kultura zabaltzea. Bazkideendako bakarrak izango da, eta askotariko ekintzetan parte hartzeko aukera izango dute

herriko erretiratuek. Lehenengo hurrengo zapatuan izango da: Hondarribiara txangoa egingo dute. Anjel Arriolabengoak, elkarteak presidentea, adierazi duenez, autobusa goizeko bederatzietan irtengo da, parketik, eta lehenengo geltokia Chillida-Leku izango da. Bazkaldu eta Hondarribiko alde zaharra ikusi ondoren, bederatzietan, bueltako autobusa hartuko dute.

Bestalde, zorabioaren eta bertigoaren gaineko berbaldia egingo du Fernando Gómez Busto geriatrak uztailaren 22an, 18:00etan, kultura etxean. Eta hilaren 23an, ezinbesteko eta alde aurretiko testamentuaren gaineko berbaldia egingo du Gómezek, aurreko eguneko ordu eta leku berean.

Antolatzaileen esanetan, uztailaren 27a Erretiratuen Asteko egun handia izango da. Egur-diko ordu batean, hildako bazkideen aldeko meza izango da; horren ondoren, San Martin Eskolara joango dira, eta han bazkaria egingo dute. Doan izango den arren, izena ematea komeni dela adierazi du elkarteak presidentek. Bazkariak jende ugari batzen duen arren, gainerako ekitaldietara joateko dei egin du.



Hondarribira joateko irteera antolatu du Alaiak elkarteak.

ARTXBOA



San Kristobal egun arrakastatsua

Giro freskoari aurre eginez, 250 bat lagunek ospatu zuten zapatuan San Kristobal eguna, Kurtzeta gainean. Meza izan zuten lehenengo eta Lagun Artean taldearen saioa ondoren. Horrez gain, egun osoan makina bat ekintza egin zituzten, erromeria eta Bolo Txapelketa, adibidez. Baita herri bazkaria ere. Bestalde, eta dagoeneko ohitura bilakatu denari jarraituz, batek baino gehiagok olio bedeinkatuarekin garbitu zituen belarriak, belarriko minak eta gaitzak sendatzeko. Oro har, domekan ikusi zen urte batetik bestera gero eta jende gehiago joaten dela Kurtzeta gaineko ermitara San Kristobal egunera.

HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragón • Kazetaria

Opor garaian kontuan hartzeko aholkuak

O rain arteko eguraldiak ez digu udaz gozatzeko gehiegi lagundu, baina tira! udan gaude eta ia urte osoa garai honen zain egoten garenez, luzatu nahi dizuedan aholku nagusia udaz disfrutatzea da.

Aztertu dezagun zergatik disfrutatatu. Abantailak dira nagusi urtaro honetan. Arropa arina eta eroso, eta sandaliak jantzen ditugu, neguko jertse lodi eta txamarrak armairuan gordez. Bestalde, urte osoan buruan bueltaka izan ditugun lan ardurak eta ikasgai latz haiek ahazteko momentua iritsi zaigu ikasle zein langileoi. Eta hori gutxi balitz,

gainera aparteko soldata eskuratzen dugu uztailaren, laster hartuko ditugun oporretan ederki asko gastatuko duguna. Eguraldiari dagokionez, teoriarik onaz eta eguzkiak disfrutatzeke garai onena da eta nahiz eta orain arte ez dugun aukera

gehiegirik izan, tenporek uztailaren 25etik aurrera eguraldi hobea iragarri dute. Aholkuekin jarraituz, oporretan osasuna zaintzeko aholkua egiten dizuet. Inoiz ez



"Uztailaren 25etik aurrera eguraldi hobea iragarri dute"

dator gaizki betiko prebentzio aholkuak errepikatzea: ez jan eta ez edan gehiegi, kontuz gidatu, eguzkia hartzen baduzue neurriak hartu norberak duen azalaren arabera, ez egin juerga gehiegi, gastuak zaindu...

Oporretan, bestalde, denbora libre ugari izango dugunez, ondo aprobetxatzeko planifikatu beharra dugu: liburu interesgarriren bat eskuratu, aspaldiko lagunekin elkartu, bidai interesgarriren bat egin,

musika entzun, seme-alabekin jolastu, herriko jaietaz gozatu...

Oporretako bueltan, irailean, pentsatu ere ez dugu nahi, baina beharbada horregatik ematen dira udazken hasieran depresio kasu ugari. Hementxe beraz aholkua: kontziente izan irailean betiko normaltasunera bueltatuko garela. Hala ere, ez zaitezte oporrak hartu orduko geratzen diren opor egunak kontatzen agobiatu, depresioan eroriko zarete eta.

Aholkuak aholku, norberak jakingo du non jarri muga, zeren eta nor ez da noizbait desmadratu?

LABUR

Sabin Salaberriren kantutegi berria aurkeztu zuten

Sabin Salaberri musikari aramaiarra azken lana aurkeztu zuen zapatuan kultura etxean. *Euskal Kantutegi* izeneko liburua da, euskal abesti herrikoien bilduma. Iparagirriren, Azkueren eta Iztuetaren kantuek batu ditu, adibidez. Helburu nagusi bi ditu: euskaldunen ahozko tradizio kantuarik gordetzea eta euskaldun berrien euskara eta euskal giroa bultzatzea.

Liburu hori egiteko, Henrike Knörr eta Patxi Goenaga euskaltzainen eta Garikoitz Knörr abeslariaren laguntza izan du Sabin Salaberri.

Errekako isurketa oraindik konpondu barik dago

UBANE MADERA

Oraindik konpondu barik dago erreko hidrokaburo isurketa. Udaleko teknikariek duela hilabete igarri zuten isurketa eta haren berri eman zuten, baina oraindik berdin dirau.

Orain hilabete, Udaleko zerbitzu teknikoko langileek isurketa bat atzeman zuten Ibarrako errekan. Hain zuzen ere, Olabetxo zubi ingurutik ateratzen zela ikusi zuten. Hidrokaburo isurketa zela jakin eta berehala, Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzari eta erreka zaintzaileari abisatu zieten. Ekainaren 24an izan zen hori. Udaleko teknikariek kontatu digutenaren arabera, erreka zaindaria Aramaiora joan zen, errekarari argazkiak atera zizkion eta gertatutakoaren berri eman zuen; baina, itxuraz, zaindaria berak ere ez zion garrantzia gehiegirik eman.

Hilabete pasa da ordutik, eta Aramaioko Udalean ez dute inolako erantzunik izan. Are gehiago, oraindik ere isurketak berdin



Ekainaren 24an abisatu zuten errekan isurketa zegoela.

dirau, "ez da likido asko irteten, baina, etengabe ari da jausi eta jausi". Teknikariek uste dute gasolio isurketa dela, baina, oraindik zer den eta nondik ateratzen den aztertzen ari dira.

Kontuak kontu, kezkatuta daude hidrokaburo horrek errekan bizitzan izan dezakeen eraginarekin. Era berean, espero dute Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen konpontzea egoera.



32 kilo arrain arrantzatu zituzten

55 lagunek parte hartu zuen joan den zapatuan jokatu zen Arrantzata Lehiaketan. Guztira, 32 kilo amuarrain harrapatu zituzten. Eta, jakina, arrain gehien arrantzatu zutenek irabazi zuten. 12-16 urtekoen artean Andoni Elejalde, Julen Robledo eta Gorka Rodriguez izan ziren irabazleak. 12 urte artekoen artean, berriz, Jon Beitiak, Iker Jauregik eta Ainhoa Gonzalezek irabazi zuten.

BOTEPRONTOAN/ Oihana Eriz · Orixol Mendizale Elkarteko presidentea

"Uste dut badagoela mendiarekiko zaletasuna; nagusiek zaletasun handia dute, baita gazteek ere"

Aramaion aspaldi existitzen den beste talde bat ezagutuko dugu oraingo astean: Orixol Mendizale Elkartea. Orain dela lau urte taldeko lehendakaria den Barajuengo Bolinburu baserriko Oihana Erizekin egon gara berbetan taldearen gainean. Hauxe da kontatu diguna:

Noiz arte lehendakari?

Galdera polita. Ez dakigu; herrian norbaitek sartzea nahi badu, prest gaude uzteko. Lau urtean lana egin dugu eta uste dugu jende berria sartzeko momentua badela.

Noiztik existitzen da Orixol?

Ez dakit esaten, aspalditik. Ni baino nagusiagoak gaztetxoak zirenean, Orixolekin joaten ziren mendira.

Zenbat bazkide zarete?

70 inguru. Nahi duena izan daiteke bazkide, sei euro ordaindu behar ditu horretarako. Horrekin, irteeretan eta prezio merkeagoa lortzen ditu. Aramaio moduko herri baten dako jende asko da, ez?

Bai, gu oso pozik gaude, eta gainera, urtetik urtera bazkide kopurua gorantz doa. Irteeretan bazkide guztiak joaten zarete?

Ez, ez dira etortzen bazkide guztiak, eta gainera, etortzen



"Urte batetik bestera Orixol Mendizale Elkarteko bazkide kopurua gorantz doa"

diren guztiak ez dira bazkide. Hortaz, zuen irteeretan edozein joan daiteke?

Bai, bai, Aramaiokoa izan, ez izan... edozein. Baina 70 lagun ez gara joaten irteeretan.

Zenbat, gutxi gorabehera?

Irteeraren arabera. Adibidez, eski irteerak sekulako arrakasta du; sagardotegikoak ere...

Sagardotegira irteteak ez du baina mendiarekin zerikusi handirik, ez?

(Barreak) Erakargarri moduan egiten dugu. Mendi irteera egiten dugu eta gero, sagardotegira goaz, jendea animatzeko. Horrez gain, urtean behin, mendi ibilaldia egiten dugu Aitor Aranaren omenez, jende piloia etortzen da, kanpoko asko. Zein izan zen Aitor Arana? Aramaioko mutil bat zen; mendia asko gustatzen zitzaion eta piloia ibiltzen zen mendian,

parapente egiten zuen... mendian hil zen. Ordutik aurrera beti egin izan dugu bere omenez mendi ibilaldia. Irailean izaten da.

Esango zenuke Aramaion mendiarekiko zaletasuna dagoela?

Nik uste dut badagoela zaletasuna. Nagusiek handia dute, baina, baita gazteek ere (edo nik horrela gura dut ikustea), nik uste dut baietz. Nahiz eta jendea Orixolen mendi irteeretan ez etorri, asko ibiltzen dira bere kabuz. Horrez gain, umeendako beste talde bat ere dugu Orixolen barruan. Oso polita izaten da eta umeak animatuta ibiltzen dira.

Ibilaldi bereziak dituzte?

Bai; bizikleta ibilaldiak, asteburua aterpetxe baten ematen dute, hemendik ibilaldi motzagoak egiten dituzte...

Aramaio Suitza txikia izanda, izango du ibilaldi politen bat...

Ezagutzen ez duenarendako, Etxagundik irten, Lezera joan, gero Orixolera eta Orixoletik San Kristobalera; eta Haitz azpietatik berriro Etxaguenera. Anboto ere oso polita da, Jarindo ingurua... leku piloia dago. Pribilegiatuak gara. Mendizale moduan, Lastertasun Handiko Trenik bai edo ez? Ez, guztiz ez, gainera.

OHARRAK

SANTAMAINA JAIAK

Barikuan hasita, Arexolako eta Arriolako auzokideek Santamaina jaiak ospatuko dituzte. Barikuan, 20:30ean etxasferoekin eta kanpai doinuekin hasiko dira jaiak. 21:00etan, auzo bertso afaria egingo dute, Mañukorta eta Seberio trikitilariak lagun-duta. Zapatuan, berriz, 12:00etan meza izango da eta gero, Aramaiotik Arexolara bizikleta lasterketa mundiala. Vermouth dantza izango da ondoren, tikitilariekin. 17:00etan Arexolatik Arriolarako kalejira egingo dute eta, gero, Arriolako elkarteetan mus eta briska txapelketa. 19:30ean, kanpai-jotze erakustaldia egingo dute, eta 22:30ean, dantzaldia. Domekan, 12:00etan meza izango da eta 18:00etan ume jolasak. Horrekin bukatuko dira jaiak. Enrike Gardoki auzo alkateak jaiak ondo eta giro onean pasatzea opa die auzokideei.

ONDASUN HIGIEZINAK

Argitaratu dira 2002. urteko Hiri eta Landa-lur Ondasun Higiezin Erroldak. Iragarki hori jendaurrean izango da 15 egunez, interesa duenak erreklamazioak egiteko.

ERRETRATUZAHARRA

Tellamendiko gurutzeak 25 urte bete ditu

Tellamendiko gurutzea jarri zutela hogeita bost urte bete dira aurten. Gurutzea lehenengo aldiz 1935.urtean jarri zuten arren, 1977ko urtarrilean, Guardia Zibilak lehergaiak jarri zituen gurutzean eta bota egin zuen. Urte bereko martxoaren 5ean jarri zuten berriro aramaioarrek gurutzea bere tokian, eta abuztuaren 17an inauguratu zuten.

Gurutzean plaka bi ikus daitezke: goian dagoena gurutzea lehenengo aldiz jarri zutenekoa da, 1935ekoa, eta bestea, berriro jarri zuten egunekoa, 1977koa. Plaka horietan gurutzearen historia irakur daiteke: aurrenekoan lehenengo gurutzearena eta bigarrenean ezandarazi zutenetik berriro jarri zuten artekoa.

Beste argazkian Aramaioiko hainbat abadek eman zuten inaugurazio meza ikus daiteke. Gure berriemailea, Josemari Velez de Mendizabal, hantxe egon zen egun hartan, eta nahiz eta abade guztien izenak jakin ez, batzuenak emateko gai izan da. Ezkerretik hasita, Jesus Mari Elejalde abadea ikus daiteke, haren aldamenean Rafa



Mendialdua, eta haren aurrean, Joxe Markiegi. Argazkiaren eskumako aldean agertzen den abade bizarduna eta eskuetan mikrofonoa duena Patxi Uribarren da.

Eguraldia lagun izan zuten ospakizunetan. Are gehiago, zerua oskarbi zegoen, eta Tellamendiko gailurretik

Aramaio eta Aramaioiko inguruak ezin hobeto ikus zitezkeen.

Lehenengo gurutzea jartzeko ekimena Jose Mari Azkarragarena izan zen, Josemari Velez de Mendizabalen osabarena. Jose Mari Azkarraga bera eta beste hiru lagun frankistek fusilatu zituzten.

Gurutzearen goiko aldean dauden bi irudietan Azkarragaren beraren eta beste fusilatu baten, Ramon Ormaetxearen, argazkiak ageri dira.

Argazkia eta berriemailea: J.M. Velez de Mendizabal
Urtea: 1977. urtea

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

San Andres, zelaia baino ez zenean

Ez dugu esango zein den argazkiko mutikoa, baina 1950ean jaio zen. Gaur egun, hortaz, 52 urte dauzka, eta argazkian hamar urte inguru izango ditu. Argazkia 1960koa da, eta, harrigarria bada ere, argazkian azaltzen dena San Andres auzoa da, Maiatzaren leko plaza, hain zuzen. Atzeko aldeko zuhaitzen azpian erreka zihonan, nahiz eta gaur egun ubidea beste bat den.



≈ 1960

Atzeko aldean ikusten diren etxeak Lukoren etxea eta Arrasate pasealekuko 23. zenbakian dauden etxeak dira.



2002

Egun, etxeak baino ez dira ikusten, eta hori gutxi balitz, orain ere lanetan ari dira San Andresen. Lasaitasun dezente, behintzat, galdu du.



ALDEDI
MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxe: 943 79 13 84

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768



ARRASATE
HOTELA

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE

Deskontuak
% 50
raino
**OINETAKO
SAILAN**

Deskontuak
% 30
raino
**BAINUJANTZI
SAILAN**

Deskontuak
% 30
raino
**MENDIKO
SAILAN**

Deskontuak
% 40
raino
**KIROL MODA
SAILAN**

2. Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA



Iturriotz 4. ARRASATE
Tel.: 943 79 14 84



Udako
eskaintza bereziak



Samsonite
WORLDPROOF



Aukera hau galduko al duzu?



Opel Corsa
bat erosteagatik aire egokitua

doan

edo, nahiago baduzu, ekipamendu bikaina duen Corsa bat izan dezakezu

7.480* € truke baino ez



Opel Astra

Aire egokitua
eta ekipamendu bikaina

11.100** € truke baino ez

**「HIL BUKAERA」
「ARTE BAKARRIK」**

Zatoz lehenbailehen zure Opel kontzesionariora eta gozatu, gainera, diesel autoen aukera onenez.



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

*Fabrikatzaileak gomendaturiko SP Penintsulan eta Balearretan. Corsa Club 1.6, 3 p. Barnean sartzen dira zergak, garrasia, promozio beharpena eta prezer plano. ** Fabrikatzaileak gomendaturiko SP Penintsulan eta Balearretan. Astra Club 1.6, 3 p, 84 cv. Barnean sartzen dira zergak, garrasia, promozio beharpena eta prezer plano, berunezko gasolina ibilgailuetan. Argazkia modeloak ez dira eskaintzekoak.

Giauto

Olabarrena z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA
San Andres Auzoa 10D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE